

### IRATI GONZALEZ JAIMERENA (Irun, 1985)

Iratik txikitatik izan du gorputz adierazpenari lotutako disziplinekiko interesa: 8 urtez gimnastika artistikoa praktikatu zuen (Denaesport eta Elgar Gym klubetan); mugimendua eta espresioaren bilaketa pertsonalaren bidean, dantza garaikideko klaseak jaso zituen (Trasposos, Estudio de Danza 84) baita funky eta euskal dantzakoak ere (Kemen dantza taldea, Irun). Arabatxo kirol klubeko akrosport taldeko partaide izan zen (2004-2006) eta baita Street Dance estiloko Dance Souls taldekoa ere.

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan Lizentziatu zen 2009an (EHU SHEE-IVEF) eta ikasketak sakondu asmoz Heziketa Fisikoan diplomatu 2012an (EHU). Honez gain, Funky dantza estiloko monitore titulua lortu zuen 2006an (FEDA Araba), Pilates MAT-ekoa 2011an (Estudio Pilates Donostia) eta Aisaldiko Zuzendari titulua 2014an (Urtxintxa eskola).

Ibilbide profesionala gorputz hezkuntza eta adierazpenenaren alorrera bideratu zuen; Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Heziketa Fisikoko irakasle moduan aritu zen EAE eta Nafarroako eskola publikoetan (2014-2018); gimnasia artistikako eta akrosporteko irakasle izan zen Gasteizko Arabatxo klubean (2006-2008), Kuadrillategi eta Bidaide Programako Hezitzailea Urtxintxa eskolan (2011-2012) eta dantza garaikide zein Funkyko irakaslea Haurtzaro eskolan eta Irun Iruten elkarteetan (2011-2013).

Pilates teknikan aditua da; Irungo eta Errenderiako auzo elkarte eta kirol zentruetan ikastaroak eman zituen eta gaur egun, teknika honek zirku disziplinatan izan dezakeen aplikazioaren esperimentazioan dabil. Azken urteotan zirkuaren didaktika eta pedagogiara bideratu du bere lana: aireko oihaletan irakasle aritu da Egiako kultur etxean (2016-2017) eta 2017tik Asvinenea zirku eskolako irakasle eta kudeatzaile lanetan dabil.

Zirku artista gisara esperientzia zabala du: 2017an AEKren Zirkorrika bideokliparen grabaketan parte hartu zuen; aire akrobata gisara lan egin du, bakarka eta bikotean (Donostia CUP 2018ko inaugurazio ekitaldia, Payasos en rebeldia gala etab.) eta hainbat zirku kabaretetan parte hartu du (Asvinenea, Guardetxe, Hoi denk zirkue...). 2018tik Iker Galarzak zuzendutako Gure Zirkua proiektuko partaide da, bikoteko lurreko akrobazia eta aire akrobazia emanaldiak eskaintzen dituelarik. 2017tik Asvinenea arte eszenikoen laborategiko partaide da eta bazkide moduan espazioa erabiltzeaz gain, elkartearen kudeaketan parte hartzen du orduztik, talde eragileko kide aktibo gisara.

### Koldo Arakistain (Zarautz 1985)

Zarauzko Mamarro malabar elkarteetan ezagutu zuen zirkua; 2008. urtean bere pasioa ogibide bihurtu asmoz, Bartzelonako Rogelio Rivel eskolan 3 urteko formakuntza profesionalari ekin zion. Eskolatik kanpo dantza garaikideko ikastaroak egin zituen, besteak beste Ona fuster, Cecilia Colacrai eta Jesus Cobos dantzariekin.

Zirkoaren didaktika eta irakaskuntzan sakondu nahian, APCC( Asociacio de Profesionals del Circ de Catalunya) antolaturiko ikastaro trinkoak burutu zituen 2013an: Lurreko eta aireko akrobazien didaktika, Orekaren pedagogia etab. Urte berean bikoteko trapezioa lantzen hasi zen Pilar Serratekin.

2016an Euskal Herrira itzuli eta Asvinenea arte eszenikoen laborategiko partaide egin zen; bazkide moduan espazioa erabiltzeaz gain, elkartearen kudeaketan parte hartzen du orduztik., talde eragileko kide aktibo gisara. Bertan "Zirkorrika"ko bideokliparen grabaketan parte hartu zuen zirku disziplina ezberdinetan.

Zirkozaurre sokuntza lantegiak antolatutako Haztegia proiektuetan parte hartzeko hautatua izan zen: 2016-17 ikasturtean ikuskizun edo pieza bat sortzea helburu zuen "Insercion" modalitatean eta 2017 urtean "Laborategi" modalitatean. Bigarren honetan Pau Portabella zirku zuzendari eta dramaturgoarekin " Tenika espresatzeko hizkuntza gisa" deituriko egonaldia burutu zuen .2017-18 ikasturtean Zirkozaurren haurren irakasle ere izan zen, zirkuaren didaktikaren inguruan buruturiko ikasketak eta ikerketak praktikara eramanez.

2018 urtean Artedramak antolaturiko "Adel 18" egonaldian izan zen; antzerkiaren arlo ezberdinak jorrazteko aukera izan zuen bertan, euskal antzezle eta dantzari ezberdinak irakasle gisa izanik; Mizel Thèret, Aiora Sedano, Iraitz Lizarraga, Paco Revueltas ,Ander Lipus eta Metrokuadroka-ko (Oier Guillan eta Javier Barandiaran).

Azken urteotan hainbat lanetan dabil oholtza gainean Euskal Herrian: 2018an Zarauzko udalaren eskariz Amancay Gaztañagak zuzendutako "A lurpean" antzezlanean parte hartu zuen. 2018-19 ikasturtean,

Gaztañagaren zuzendaritzapean berriz ere, Zestoako Eromen antzerki taldearen "Florida" antzezlanean parte hartu du.

2018tik "Malas compañías" konpainiaren azken sorkuntzan lanean dabil Maite Guevarak zuzenduriko "Prozak" antzezlanean, aretoan ezezik kaleko formatuan ere hainbat emanaldi eskainiz Euskal Herriko jaialdi eta plazetan.

2017ko Irailetik Iratirekin bikote artistikoa osatu eta Iker Galartza buru duen Gure zirkuan lanean dabilrza, lurreko zein trapezio gaineko bikote akrobazia landuz., Elkarrekin bikoteko akrobaziaren lanketa eta ikerketan murgildu dira azkenaldian eta hainbat ikastaro trinko eta topaketetan parte hartu dute bilaketa horretan sakondu asmoz:

Mariano Pujalekin (Argentina) binakako akrobazia, Maximiliano Sanfdordekin "Dantza eta mugimendu akrobatikoa", Shakti Olaizolak "Punto de fuga" espazioarenkin elkarlanean antolatutako ikastaroa, Amer Kabbanirekin binakako akrobazia dinamikoak etab. Matarorko Cronopis espazioan antolaturiko EPAn izan dira.

### Iraia Elias (1980, Zarautz)

2001ean diplomatu zen irakasle bezala heziketa bereziko espezialitatean, Donostiako EHU. Era berean antzerkiarekiko interesak Donostiako TAEn antzerki ikasketak egitera bultzatu zuen, baita bere interesekoak ziren adar ezberdinetako antzerki ikastaroak egitera ere han eta hemen.

Azken esperientzia Buenos Airesen izan du 2016.urtean, Lecoq-en pedagogian oinarritzen den antzerki sorkuntza eta mugimenduzko CABUIA eskola internazionalen.

Urte hauetan guztietan proiektu ezberdinetan hartu izan du parte eta proiektu kuttunen artean daude Ainhoa Alberdirekin batera sortutako TTAK TEATROA (2009) eta bertan eginiko lan ezberdinak. Hala nola *Eta Kar mele? Eta oain ze?...* Bestetik METROKOADROKA KOLEKTIBOaren parte ere bada eta bertan sortuak ditu *Zertarako hegoak?* Eta *Gabrielen lekua* sentikaria esaterako, eta azken sorkuntza, Eako poesia egunerako sortutako *Zanbuia!*. Zineman berriz, Koldo Almandozen *Oreina* filmean parte hartu zuen (2017) eta Asier Altunaren, *Amama* filmean (2015) aktore moduan jardun zuen, 2016ko Goya sarietan Aktore errebelazio moduan izendatua izan zelarik.

Momentu honetan Chapito talde portugaldarrak zuzendu eta Vaiven antzerki konpainiak ekoizten duen *Sherezade eta tipularen azalak* lanarekin dabil, eta baita Kamikaz kolektiboak eta TTak teatroak elkarlanean sorturiko *Agur eta Dolor*e lanarekin. Azken honek Pabelloi 6ko euskarazko pieza laburrik onenaren Kriseilu saria eskuratu zuen. 2018an Zarauzko udalaren eskariz Amancay Gaztañagak zuzendutako *A lurpean* antzezlanean A gorpuztu zuen. Gehituk eskatuta eta besteak beste goteo plataformaren laguntzaz ekoztutako *Kaffka* n ere parte du. Azken hau Amancay Gaztañaga, Miren Gaztañaga eta Erika Olaizolak osatzen dute kamikaz kolektiboak zuzendu dute.